



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2014/2015 ikasturtea

SAREAN DANTZAN: YOUTUBEKO BIDEOEN ERABILGARRITASUNA LEHEN HEZKUNTZAN

Egilea: Ziortza Elorriaga Etxebarria

Zuzendaria: Gotzon Ibarretxe Txakartegi

Leioan, 2015eko ekainaren 3an

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo joera.....	4
1.1. Kontzeptuak	4
1.2. Aurrekariak	5
1.3. Dantza eta teknologia berriak	6
1.3.1. Musika edota dantza eta Internet	6
1.3.2. Eredu konstruktibista eta teknologia berriak	7
1.4. Dantza Lehen Hezkuntzako curriculumean	8
2. Metodologia	9
2.1. Helburuak eta hipotesiak.....	9
2.2. Diseinua eta prozedura.....	10
2.3. Lagina	11
3. Emaitzak eta eztabaida.....	12
3.1. Bideoen analisisa	12
3.2. Bideoen behaketa	15
3.3. Hipotesien inguruko eztabaida.....	20
4. Ondorioak eta prospektiba	21
4.1. Etorkizunerako proposamenak	23
Erreferentzia bibliografikoak	24
ERANSKINAK.....	27
1. eranskina. Bideoen analisisa	28
2. eranskina. Bideoen behaketa	40

SAREAN DANTZAN: YOUTUBEKO BIDEOEN ERABILGARRITASUNA LEHEN HEZKUNTZAN

Ziortza Elorriaga Etxebarria

UPV/EHU

Lanaren helburu nagusia hauxe izan da: Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan gehien dantzaten diren, eta Youtubeko bideoetan agertzen diren, euskal dantzen erabilera aztertzea eta balioztatzea. Horretarako, Lehen Hezkuntzako eskolek eta dantza taldeek ekoiztutako dantzak behatu dira. Ikerketa hau egiteko etnografia birtualaren metodoa erabili da. Emaitzei erreparatuz, esan daiteke, eskoletako dantza gutxi dagoela Interneten, eta euskal dantzek ikasleen formakuntzan onurak edo laguntzak eskaintzen dituztela; izan ere, ikasleen garapen integralean beharrezkoak diren faktoreak lantzea eskatzen baitute. Gainera, euskal dantzei esker, ikasleek bere herriaren ondare kulturala ezagutzeko eta gozatzeko aukera izango dute.

Hitz gakoak: Internet, euskal dantzak, Lehen Hezkuntza, garapen integrala, ondarea

El objetivo principal de este trabajo ha sido analizar y valorar el uso de las danzas vascas que más se bailan en las escuelas de Educación Primaria y aparecen en Youtube; para lo que se han examinado las danzas bailadas tanto por alumnos de escuelas de primaria como por grupos de danzas vascas. Para realizar esta investigación se ha empleado el método de la etnografía virtual. Los resultados muestran que las escuelas cuelgan pocos vídeos de sus bailes en Internet, y también que las danzas vascas ayudan y ofrecen beneficios en la formación de los alumnos, ya que mediante esos bailes se trabajan los diferentes aspectos que son imprescindibles en el desarrollo integral del alumnado. Además, gracias a las danzas vascas los niños tienen la opción de conocer y de disfrutar del patrimonio cultural de su pueblo.

Palabras clave: Internet, danzas vascas, Educación Primaria, desarrollo integral, patrimonio

The aim of this work has been the analysis and assessment of the use of the Basque dances on Primary schools and videos appearing in Youtube; and in order to do that analysis I have observed dances made by pupils and groups of Basque dances. For doing this research, I have used the ethnographical online method. The results show that the Primary schools upload few videos of their Basque dances to Internet; and also that the Basque dances help and offer benefits to the pupil's formation; considering that the Basque dances ask for working some essential aspects for the integral development of the pupils. In addition, the pupils have the option to know and also to enjoy the cultural heritage of their nation.

Key words: Internet, Basque dances, Primary education, integral development, heritage

Sarrera

Teknologia berrien esparrua oso garrantzitsua da gaurko ikasleen bizitzan. Eskolan, gero eta gehiago erabiltzen dituzte teknologia berri hauek, adin konkretu batzuetako ikasleek beraien ordenagailu propioa dutelarik. Gainera, egungo gela gehienetan arbel digital bat dago. Lan honek, hain zuzen ere, euskal dantzak eta gaur egun ikasleen bizitzan hain presente dauden teknologia berriak uztartu nahi ditu; ikastetxeetan egiten diren euskal dantzak eta sarean agertzen direnen erabilera zer nolakoa den ikertuz. Lan hau hasi aurretik, esan beharra dago, ez genekiela askorik sarean dantzek izan zezaketen presentzia; hau da, ez genekien eskoletan egiten diren euskal dantzak aurkitzeko nolako aukerak izango genituen.

Horrela, euskal dantzak eta gaur egungo teknologia berriez aritzen den ikerketa etnografiko bat planteatu da. Ikerketa honetan, dantzak eta teknologiak berriak uztartzeaz gain, eskoletan egiten diren dantzen eta eskolatik kanpoko dantza taldeek egiten dituzten dantzen arteko kontrastea ere bilatu da; horrek, dantzak bai eskolan bai dantza taldeetan duen funtzioa ulertzeko aukera eskaini digularik.

Euskal dantzek eskoletan duten erabilera, eta sarean agertzen diren dantzak, landu nahi genituenez, baita haien arteko harremana ere, zein dantza aztertuko genuen erabaki beharra zegoen. Eskola askotan, Oskorri musika taldearen “Hi ere dantzari” izeneko diskoa erabiltzen dutenez, disko horretan agertzen diren dantzak aztertzea erabaki genuen.

Dantzak, orain arte, eskolaren esparruan, ikuskizun desberdinetan edo inauterietan ikusi izan ditugu. Baina sarean egindako bilaketei esker, dantzen presentzia eskolako zein esparrutara zabaltzen den ere aztertu nahi izan da; hau da, ea musikako arlotik edota Gorputz Hezkuntzako arlotik haratago dantzarik egiten den ala ez jakin nahi izan dugu.

Bestalde, dantzak eskolan lantzea aberasgarria izan daiteke, dantza bera ikasteaz gain, beste zenbait aspektu landu daitezkeelako; horien artean, lateralitatea, bakoitzaren gorputz atalen arteko koordinazioa, besteekin koordinatzea, talde kohesioa, eta abar. Gainera, ikasleek beraien gorputzaren garapenarekin zerikusia duten aspektuak lantzeko aukera izateaz gain, dantzei esker, haien arbasoek utzitako ondarrera gerturatzeko parada ere izan dezakete. Gai horiek guztiak izan dira, hain zuzen ere, lan honetan ikertu ditugunak, eta baita proposamen berriak egiteko orduan abiapuntutzat hartu ditugunak ere.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo joera

1.1. Kontzeptuak

Kultura, folklorea eta dantza betidanik oso lotuta agertu ohi diren kontzeptuak izan dira. Ikus dezagun zertan datzan haien arteko lotura.

Geertzek (1992) kultura honela definitzen du: esanahien trama da, eta gizakiok bakoitzaren existentzia eta esperientzia interpretatzen dugu. Bestalde, kultura, gizartearen akzioa onartzen duen forma da: existitzen diren gizartearen arteko harremanen sarea. Kultura eta gizartea, orduan, fenomeno berdinen abstrakzio ezberdinak dira. Kulturaren definizio hau kontuan hartuz, folklorea gizarte bat definitzen duen ekintza kulturaletako atal bat dela esan daiteke. Folklore hitzak, “herri jakintza” esan nahi du. Folklore kontzeptuarekin herri baten ohizko sineskizun, sineskeri, eskulan, ohitura eta adierazpide multzoa izendatzen dugu (Zengotita-Bengoa, 1995).

Folklorea osatzen duten adierazpide horien artean aurkitzen dira dantzak. Baina zer da dantza? Dantza folklorikoak, gizarte, kultura eta geografia zehatz bati lotuta daude, eta urteetan zehar forma, sinbologia eta protokoloari dagokionez, behintzat, aldatu gabe mantendu dira. Dantza giroa edo hasierako zentzua galdu dute, baina beraien forman ez dute aldaketa nabarmenik izan. Ezinezkoa da jakitea dantza hauen sorrera zein den, edota koreografia nork asmatu zuen (Zengoitia-Bengoa, 1995).

Euskal Herriko folkloreak barruan, zenbait euskal dantza folkloriko aurkitzen dira. Euskal dantza asko, etenaldirik gabe dantzatu dira azken 400 urteetan, batez ere, jai eta ospakizun erlijiosoetan. Beste batzuk, ordea, konkretuki XVIII. mendeko dantzak dira. Denboraren poderioz dantza batzuek garrantzia galdu dute, desagertu arte.

XX. mendearen lehenengo herenean, dantza tradizionalak indarra hartu zuten, eta Euskal Herriko hirietan dantza topaketa eta ikuskizun handietan parte-hartzeko dantza taldeak sortu ziren. Hala ere, guda zibilak euskal kultura isilarazi eta desagerraraziko du. Francoren diktadurapean, euskal folklorea gutxiengo baten esku egongo da; hala ere, 40. eta 50. hamarkadan hiri desberdinetan haien artean harremana izango zuten dantza taldeak sortzen hasiko dira; eta horrek taldeen arteko ezagutza trukaketa ahalbidetzen zuen.

Gaur egun, Euskal Herrian 250 dantza talde baino gehiago daude. Dantza talde hauek nahiz eta dantza tradizionalen funtzio kulturala mantendu, azken urteetan dantza garaikideko elementuak bereganatu eta koreografia berriak sortzen aritu dira. Beti ere, oinarritzat dantza tradizionala hartuz, pausu batzuek ñabartzen dituzte dantza eta ikuskizun berriak sortzeko.

1.2. Aurrekariak

Dantzak fenomeno sozialak diren neurrian, gizartean ez ezik eskolan ere presente egon dira betidanik. Dantzen bilakaera ezberdina izan da urteetan zehar, eta dantza horiei eman zaien garrantzia ere aldatuz joan da. Hau dela eta, Muruamendiarazek (2012) uste du, gaur egungo eskoletan, tradizioa landu behar dela, ikasleak gizarte talde baten barruan dauden momentutik beraien kultura eta folklorea ezagutu dezaten; izan ere, kultura batek bizirik irauten du, kultura hori erabiltzen den heinean.

Tradizioa lantzeko, dantzek oso aukera ona eskaintzen dute. Dantzak, hezkuntzan lantzeak, ikasleen garapen integrala garatzen laguntzen du. Haselbachen (1979) ustez, ikasleen garapen integralean dantzek eskaintzen duten laguntza ikuspegi ezberdinetatik azter daiteke: kognitibotik (autorearekin, testuinguru soziala eta kulturalarekin, edota obra horren melodia eta erritmoarekin zerikusia duen guztia), psikomotrizetik (koordinazioa, segmentuen independentzia, oinen eta eskuen arteko koordinazioa, lateralitatea eta espazio-denboraren erlazioa) eta sozial eta afektibotik (taldearen kohesioa eta niaren eta besteen pertzepzioa).

Gainera, Fregaren (1997) ustez, dantzaren praktikak, entzumen-sistema hobetu, sentimenduak eta ideiak adierazteko erraztasuna eman, eta oroimenaren garapenean laguntzen du. Horretaz gain, mugimenduarekiko ahalmena hobetzeko aberasgarria da, ahalmen artistiko sortzaileak indartzen ditu, integrazio sozio-kultura eta hizkuntza ahalmenak garatzeko lagungarria da.

Bestalde, dantza tradizionalaren ikaskuntzak, nahiz eta hezkuntza munduan guztiz murgilduta ez egon (Pedrero, 2013), gure arbasoek dantzatzen zituzten dantzak ezagutzen, ulertzen eta balioesten laguntzen du. Dantza horiek gure ondarearen oinarria

diren momentutik, lurraldeko haurrek beraien kultura ezagutzeko baliabide gisa erabili ahal dira.

Azkenik, Larrinagarekin (2007) batera esan daiteke, ikasleekin folklorea ez dela erabili behar bakarrik kultura ezagutzeko baliabide gisa, eta beste aspektu batzuk garatzeko aprobetxatu beharra dagoela: gorputzaren kontrola, sormena, erritmoa eta koordinazioa

1.3. Dantza eta teknologia berriak

1.3.1. Musika edota dantza eta Internet

Hezkuntza musikala eremu ezberdinetan antolatuta dago, hezkuntza curriculumaren edukien arabera. Eremu horietako batzuk lengoaia musikala, teknika instrumentala edo dantza dira. Gaur egungo mendebaldeko gizarteetan oso komuna da musikaren irakaskuntza hezkuntzako lehen mailetatik sartzea. Hezkuntza musikalak, Diazen (2004) esanetan, adierazpen lengoaien ezagutza ahalbidetu beharko luke; izan ere, lengoaia horiek komunikazio bideak izateaz gain, espiritu kritikoa sustatzen baitute. Zentzu honetan, musika bera, lengoaia bezala, ikasleen formakuntzaren alorrik artistikoenak osatzeko aktibo bat da gaur egun. Musikaz gain, Internet ere hezkuntzako lehen etapetan sartzan ari da beste aktibo bat bezala. Liegle eta Messori (2000) ustez, Internet eta bere web tools horiek, www bidea erabiliz, ikasleei ezagutza banatzeko erabiltzen dira.

Lengoaia musikalak, gutxiago edo gehiago, garatuta dauden eta zerbait adierazteko edo komunikatzeko intentzioa duten mezuen trukea ahalbidetzen du. Gomezek (1990), lengoaia desberdinak aipatzen ditu, eta esaten du helburu artistikoak edo zientifikoak dituzten lengoaiak hezkuntzan lantzea garrantzitsua dela, funtzio ezberdinak parte hartzen dutelako: funtzio motorrak, pertzeptiboak eta kognitiboak, hain zuzen ere. Merce Vilarrek (2004) dionaren arabera, baieztatu daiteke gizakiak berezko alde aurretiko jarrera bat duela jokaera musikalen adierazpenerako, sentimenduak dantzaren kasuan, igortzeko, ulertzeko eta erabiltzeko aukera ematen diolarik. Horregatik, musika lengoaia bat kontsideratzen da, adierazpen indibidualerako tresna eta gizarte bereko gizakientzako komunikazio tresna den neurrian.

Ikuspegi digital batetik begiraturaz, Loganek (2000) dio, lengoaiak garatzen joan direla historian zehar, lengoaien, teknologien, kulturen eta prozesu sozialen koeboluzio bategatik. Horrela, Internetek web 2.0 tresnen aldeko eboluzioa izan duen bitartean, musikarako tresna web espezifikoak garatu direla konprobatu daiteke. Lengoia musikala ulertzen duten, eta Internet bidez erreproduzitu daitezkeen musikarako eta musikaren barruan sartzan diren eremu guztientzako, tresna espezifiko berriak sortzen dira. Irakasleen eta ikasleen gero eta parte-hartze aktiboagoarekin era ireki batean edukiak partekatzen dituzten komunitateak sortzen dira.

1.3.2. Eredu konstruktibista eta teknologia berriak

Azken hamarkadan, ikertzaile asko teknologia berriek ikaskuntza konstruktibistan izan dezaketen eragina aztertzen dabilta. Ikerketa horiei esker, ikusi da ordenagailuak tresna aproposak direla sormena lantzeko; hau da, ordenagailuek, ikasleei bereganatu dituzten ezagutzak erakusteko eta nahi dutena adierazteko aukera ematen die. Online egindako proiektuak, eta web argitalpenak ere, irakasleak haien ikasleak ikasketa prozesuan konprometitzeko era berria eta zirrargarria izan direla konprobatu da.

Ikerketa batzuek baieztatu dute, irakasle konstruktibistek, haien ikasleen artean ordenagailuaren erabilera bultzatzen dutela, eskolako ekintza desberdinak egiteko. Konstruktibismoaren eta ordenagailuen arteko harremana oso ona da, teknologiek ikasleei beraien bizitza aztertzekeo beharrezkoa duten informazioa heltzeko sarbide espezifikoak ematen baitie. Komunikazioa errazten du eta ikasleari bere iritzia azaltzeko aukera eskaintzen dio, iritzi horiek irakurtzen dituen audientzia nahiko zabala delarik. Era berean ikasle hori, gelatik, eskolatik eta herrialdetik kanpo dauden mundu errealeko beste pertsona batzuen iritziak entzutera arriskatzan da. Horiek dira baldintza onenak ikaskuntza konstruktibista baterako (Becker, 1998).

Beste ikerketa batzuek, kultura honetako kostu baxuko informatikaren erabilgarritasunak oinarritzko ideiak aldatu beharko lituzkeela, proposatzen dute. Horretarako, irakasleen irakasteko erak, eta irakasten dituzten edukiak aldatu beharko lirateke. Ikertzaileek diote, arkatzak, paperak eta arbelak baldintzatu dutela irakaskuntza. Era egokian konfiguratutako programa informatikoak, ezagutza tradizionalak adierazteko erabil daitezkeen materialak baino askoz boteretsuagoak dira, eta ikasleentzako egokiagoak (Papert, 1993).

1.4. Dantza Lehen Hezkuntzako curriculumean

175/2007 dekretuan oinarrituta, hezkuntza curriculumari dagokionez, hezkuntza gaitasun orokorrei dantzek hainbat ekarpen egiten dizkietela esan daiteke.

Pentsatzen eta ikasten ikasteari dagokionez, dantzaren bidez, arte guztietan gertatzen den bezalaxe, ikasleen hezkuntzan ezinbestekoak diren sormena eta zentzu kritikoa lantzeko aukera paregabeak eskaintzen dira. Gainera, dantza egiteak dantzariaren pentsamenduan eta ikasteko gaitasunean eragiten du. Buruak ikasten du dantzan, baina gorputzak ere bai, eta bien arteko koordinazio lanek elkarren ezagutza sendotzen laguntzen dute. Dantzaren bidez, espazioaren, ingurunearen eta gorputzaren ezagutza zabaltzen da.

Norbera izaten ikasteari dagokionez, dantzak pertsona bakoitzak bai bere burua bai bere gorputza ezagutzera behartzen du; izan ere gorputza da dantza egiteko dugun tresna eta horri esker gure gorputzaren gaitasunak edota mugak zeintzuk diren ikus dezakegu. Aldi berean, elkarrekin bizitzen ikasteari dagokionez, dantza bakarrik egin dezakegu, baina normalean taldean, elkarlanean aritu ohi gara, taldekidetasuna suspertuz.

Horrez gain, curriculumaren arabera, Arte Hezkuntzan bete beharreko helburuen artean, dantza, kultura eta teknologiarekin zerikusia daukaten ondorengoak aukeratu daitezke:

- Musika-kulturako arteek eta produktuek, ideiak, sentimenduak eta bizipenak jakinarazteko eta adierazteko eskaintzen dituzten aukerak ulertzea. Musika produktu horiek Euskal Herriko ondarea eratzen duten elementutzat hartzea, eta, horrela, artea eta kultura ezagutzen eta gozatzen laguntzea.
- Musika-kulturako produktuen funtzio sozialak eta erabilerak ezagutzea, eta norberaren eta besteen esperimenduetan ezagutzea, produktu horiek hainbat garai eta kulturatan izan dezaketan eta izan duten zeregina ulertzeko.
- Arte-hizkuntzen tekniken, baliabideen eta arauen oinarrizko ezagutza eta jakintza izatea. Teknologiek eskaintzen dituzten aukerak ikastea, ekoizpenetan erabili ahal izateko.

Beraz, teknologia, musikarekin edo dantzarekin lotutako prozesuak erakusteko tresna izan daiteke, bai eta ikasleak musika ekoizpenen sorkuntzara gerturatzeko tresna ere. Horrez gain, teknologia berriek ikasleek beraien sorkuntzak egiteko edo lanetarako informazio erabilgarria bilatzeko balio dute. Gainera, musika-ekoizpenek euskarri teknologikoa erabiltzen dute gero eta gehiago, horregatik esan beharra dago arte-gaitasuna eta gaitasun digitala ezinbestean lotuta daudela eremu horretan.

Curriculumak ikasleek Lehen Hezkuntzan zehar garatu beharreko oinarrizko gaitasun batzuk ere finkatzen ditu. Aurretik dantza eta teknologia berriak lotzen aritu garenez, esan behar da, arte hezkuntzaren arloak ere egiten diola ekarpena informazioa tratatzeko eta teknologia digitalak erabiltzeko gaitasunari.

2. Metodologia

2.1. Helburuak eta hipotesiak

Jarraian, marko teorikoan jasotako informazioan oinarrituta, ikerketa honen helburuak zehazten dira. Horrela, atal honen barnean, helburu nagusiak eta konketuak desberdintzen dira, baita zenbait hipotesi ere. Aipatu beharra dago, helburu nagusiak hiru helburu konketuak barneratzen dituela, eta helburu konketu bakoitzari hipotesi bat dagokiola.

Helburu nagusia

Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan gehien dantzatzen diren, eta Youtubeko bideoetan agertzen diren, euskal dantzen erabilera aztertzea eta balioztatzea.

Helburu konketuak

- Euskal dantza eta musika-hezkuntzaren inguruan sortutako Youtubeko bideoak behatzea eta sailkatzea.
- Ikastetxeek, alde batetik, eta dantza taldeek, bestetik, ekoiztutako bideoen azterketa eta konparaketa: zein ekintza mota eta zein dantzatoki nagusitzen diren ezagutzea.

- Bideoek Lehen Hezkuntzako curriculumeko helburu eta gaitasun orokorrekin dauzkaten erlazioak aztertzea.

Hipotesiak

1. Ikastetxeetan dantzatzen diren dantzen zailtasun teknikoak erabakitzen du bere presentzia Youtuben.
2. Ikastetxe eta dantza taldeen ekoizpenen arteko ezberdintasunek, dantzen erabilera eta testuinguruarekin zerikusia daukate, batik bat.
3. Euskal dantza horien aukeraketan erabakiorra da bere izaera parte-hartzailea eta taldekidetasuna suspertzeko edota integratzeko gaitasuna.

2.2. Diseinua eta prozedura

Ikerketa honetan oinarrizko azterketa kuantitatibo bat egiten da. Hala ere, datuen tratamendua eta interpretazioari dagokionez, ikerketa hau paradigma kualitatiboaren barnean kokatzen dugu, eta zehatz-mehatz, metodo etnografikoaz baliatzen gara. Etnografiaren tradizioak antropologia kulturallean eta soziologia kualitatiboan ditu bere sustraiak, eta etnografia eszenatoki eta talde kulturalen deskribapen eta berreraikitze bezala ulertzen da (Geertz, 1987; Colás, 1997; Sandín, 2003).

Ikerketa hau, analisi dokumental batean oinarritzen da, eta ‘etnografia online’ edo ‘etnografia birtuala’ deritzan horretan, *lurker* gisa aritzen da; hau da, ezkutuko behaketa parte-hartzailea egiten du (Hine 2000, 2005). Konkretuki, eskolek eta euskal dantza taldeek egindako euskal dantza folklorikoen Youtubeko bideoak aztertu dira. Horretarako, eskoletan eta dantza taldeetan Oskorri musika folk taldeak “Hi ere dantzari” diskoan dituen dantzek zein erabilera duten aztertu, behatu eta balioztatu dugu.

Bideo bakoitzari buruzko zenbait datu bildu dira, horien artean: eskolaren edo dantza taldearen izena, eskolako bideoen kasuan ikasleen adina, dantzatokia eta ekintza mota.

Dantza taldeen bideoei dagokienez, sailkapen bat egin da, dantza taldeen tutorialak edo tailerrak, entseguak, erromeriak, emanaldiak eta musika taldeen zein koroen grabazioak, argazkiak edota CDen karatulak desberdinduz.

Eskoletako eta dantza taldeetako bideoak jaso ondoren, datuak kuantifikatu dira, zenbait emaitza atera ahal izateko. Ostean, sei bideo aztertu ditugu, irizpide batzuen arabera. Hiru bideo eskoletan ekoiztutakoak izan dira, eta beste hiru dantza taldeetan sortutakoak. Eskoletako eta dantza taldeetako bideoen arteko kontrastea gauzatu ahal izateko, hiru kasuetan hiru dantza aztertu ditugu.

2.3. Lagina

Ikerketa honetan, eskoletan eta dantza taldeetan egiten diren euskal dantzen erabilera aztertzeko, Interneteko Youtube ataria eta beste zenbait blog edo web orri aztertu dira. Bideoek bete beharreko baldintzak ondorengo hauexek ziren:

- Euskal Herriko eskoletako bideoak edo Euskal Herriko dantza taldeen bideoak izatea.
- Bideoetan ageri diren dantzak, Oskorri musika taldearen “Hi ere dantzari” diskoko dantzak izatea.

Bai eskolei bai dantza taldeei dagokienez, aztertutako bideo guztiak 451 izan dira. Horietatik 60 bideo eskoletakoak izan dira eta 391 dantza taldeetakoak. Aurretik esan bezalaxe, bideoetan agertzen ziren dantzak “Hi ere dantzari” diskokoak izan behar ziren. Ondorengo taulan (1. taula), zenbat bideo aztertu diren zehazten da.

Dantza	Eskoletako bideoak	Dantza taldeetako bideoak
Axuri Beltza	0	68
Polka Pik	3	21
Nafarroa Behereko martxa	1	21
Fandangoa	1	56
Arin – arina	0	40
Fasioren martxea	0	13

Zazpi Jauziak	10	35
Aintzina Pika	0	16
San Petrike	11	13
Zapatagin dantza	4	6
Esku dantza	12	12
Bolant dantza	1	14
Txulalai	17	26
1. kontradantza	0	18
2. kontradantza	0	13
3. kontradantza	0	11
4. kontradantza	0	8


1. taula: Aztertutako bideo kopurua

3. Emaitzak eta eztabaida

3.1. Bideoen analisisa

Lehen esan bezala, bildutako bideoetatik hatutako zenbait datu kuantifikatu dira (ikus 1. eranskina). Horrela, eskoletako bideoei dagokienez, ondorengo datuak kuantifikatu dira: zein eskolek erabiltzen duten sarea gehien beraien dantzak erakusteko, zein ekintza motetan egiten dituzten dantza horiek eta zein izaten den ikasleek dantza horiek egiteko erabiltzen dituzten dantzatokiak.


Haien dantzak erakusteko zein eskolek erabiltzen duen sarea gehien aztertuz ondorengo datuak lortu ditugu:



1.grafikoa: Zein eskolek erabiltzen dute sarea gehien haien dantzak erakusteko?

Grafiko honetan (1. grafikoa) agertzen diren emaitzei erreparatu, esan dezakegu, ez direla eskola askoren bideoak agertzen. Grafiko honetan (1. grafikoa) 26 eskola desberdinek beraien bideoak Interneten eskegitzen dituztela konprobatu ahal izan dugu. Eskola gehienek bideo gutxi eskegitzen dituzte; izan ere, oso portzentaje baxuak baitira grafiko honetako (1. grafikoa) gehienak. Hala ere, badira bideo gehiago eskegitzen dituzten eskolak; horien artean aipagarrienak Iruneko Belaskoenea eskola eta Sodupeko Avellaneda eskola dira.

Horrez gain, ikasleek dantza horiek noiz egiten dituzten aztertu dugu: horrela, eskolan dantzak horiek duten funtzioa ulertu ahal izango dugu.




2. grafikoa: Eskoletan zein ekintza motetan egiten dituzte dantza hauek?

Eskoletan dantza hauek hainbat arrazoi baliatuz egiten dituzte; grafikoan (2. grafikoa) ikus daitekeen bezala ohikoenak ikuskizunak (Gabonetako ikuskizunak edo kurtso amaierako ikuskizunak) eta inauteriak, direlarik. Horrez gain, aipatu beharra dago zenbait eskolek haiek egiten dituzten entseguen bideoak eskegitzen dituztela sarean.

Emaitza hauek begiraturuta esan dezakegu, dantza hauek eskoletan duten funtzio nagusia kulturala dela; izan ere, dantzak kutsu kulturala duten ospakizunetan egiten baitituzte; hala nola, inauterietan, kurtso amaierako ikuskizunetan eta Gabonetako ikuskizunetan, batik bat.


Eskoletako dantzen inguruan zein dantzaleku erabiltzen dituzten ere aztertu dugu. Hona hemen azterketa horren emaitzak:



3. grafikoa: Zein izaten da ikasleek dantza horiek egiteko erabiltzen duten dantzatokia?

Grafiko honi (3. grafikoa) erreparatuz, esan dezakegu bideo gehienek dantzak eskolan bertan egiten direla erakusten dutela. Bideo gehienak eskolako gelan, gimnasioan edo patioan grabatutakoak dira. Hala ere, badaude eskola batzuk herriko instalazioez baliatzen direnak beraien ikuskizunak eskaintzeko. Hala gertatzen den kasuetan, gehienak pilotalekuetan, herriko plazetan, aretoetan edo beste edozein eszenatokietan aritu ohi dira. Eskolak eskaintzen dituen lekuetan zentratuz, gehien erabiltzen dena patioa da eta ondoren gimnasioa.

Behin eskoletan gertatzen dena aztertuta, ikus dezagun dantza taldeen bideoek orokorrean zein emaitza utzi dizkiguten. Arestian esan bezala, bideo hauek ekintza motaren arabera sailkatu ditugu dantza taldeen emanaldiak, dantza taldeen entseguak, dantza tailerrak edo tutorialak, erromeriak eta musika taldeen grabazioak, koroen grabazioak, karatulak, argazkiak, karaokeak edota partiturak bereiziz.



4. grafikoa: Dantza taldeetako emaitzak orokorrean

Grafiko honetan (4. grafikoa, edo eranskinetan 19.a) ikus daitekeenez, dantza taldeen artean, eskolen kasuan bezalaxe, gehiago dira emanaldiak edota ikuskizunak. Interneten egindako bilaketen erdia baino gehiago ikuskizunak dira; konkretuki %61a hartzen du kategoria horrek. Ikuskizunekin batera nagusitzen den beste kategoria musika talde baten grabazio, koro baten emanaldi, karaoke bat edo partitura bat izenekoa da, zehazki bilaketen %27a dago multzo honetan.

Horrez gain, beste kategoria batzuetako bideoak ere badaude, nahiz eta horiek oso gutxi izan. Horrela, herri desberdinetako festetan, plazan edo beste leku batean egiten diren erromerien kategoriarik bilaketen %6a dagokio eta jendeak beraiek grabatutako eta igotako tutorialen edo dantza tailerren kategoriarik %5a. Horrez gain, dantza talde baten edo beste baten entseguak ere aurkitu ditugu; horiek bilaketa guztien %1a direlarik.

Bukatzeko, esan beharra dago, 1. eranskinean dauden grafikoaren artean, Polka Pik, Zazpi Jauziak eta Txulalai dantzen kasuak bitxiak direla (ikus 1. eranskina; 5., 10. eta 14. grafikoa). Hiru dantza horiek, eskoletan gehien dantzatzeko diren artean daude, eta aldi berean, dantza taldeek erromerietan asko dantzatzeko dituzte. Azkenean, esan daiteke, eskoletan irakasten diren dantza ezagunenak, eremu sozial eta kulturean islatzen direla.

3.2. Bideoen behaketa

Goian esan bezala, sei bideo aztertu eta zenbait emaitza desberdin jaso genituen (ikus 2. eranskina). Bideo horiek aztertzeko beharrezkoa izan zen zenbait irizpide finkatzea. Irizpide horiek zeintzuk izango ziren jakiteko Madrilgo unibertsitatean egindako *Culturas de aprendizaje musical: concepciones, procesos y prácticas de aprendizaje en Clásico, Flamenco y Jazz* izeneko doktorego tesian oinarritu ginen. Tesi honetan taula bat diseinatu zuten grabatutako klase baten analisia egiteko. Taula horren edukia gure gaira ekarri, eta curriculumeko gaiari lotuz, dantzak aztertzeko ondorengo irizpide zerrenda prestatu genuen:

- Lehenengo, dantzaren aurkezpena egingo da.
- Jarraian, dantza horren funtzio nagusia (soziokulturala, ondarea mantentzekoa, kulturala) azalduko da.

- Eskoletako eta dantza taldeen bideoen arteko konparaketa egingo da; kontuan izanik, ea ze punturaino dantza taldeek erabiltzen dituzten pausuak erabilgarriak (errazak ala zailak) diren eskoletan dantzatzeko.
- Ziklo bakoitzean ze eduki landuko liratekeen azalduko da.
- Arte Hezkuntzako ze helburu betetzen diren esango da.
- Dantza hori Interneteko bideoekin lantzeak ze abantaila daukan azalduko da.

Hala, aztertutako dantzak Polka pik, Zazpi Jauziak eta Zapatagin dantza izan dira.

Lehenengo Polka Pik dantzari buruzko zenbait datu emango ditut eta jarraian datu berak emango ditut bai zazpi jauzi bai zapatagin dantzari buruz. Behin datu horiek guztiak emanda, curriculum lantzeko nola laguntzen duten azalduko dut; izan ere, hiru dantzek era berean laguntzen baitute.



1.irudia: Polka Pik dantza Huarteko Virgen Blancako ikastolako 1. mailako ikasleen eskutik



2. irudia: Polka Pik dantza Iruña dantza taldeko kideen eskutik

Polka Pik dantzari dagokionez, Huarteko Virgen Blanca eskolako 1. mailako dantza (1. irudia) eta Iruña dantza taldearen bideoa (2. irudia) aztertu ditut. Jatorriz, Polka Pik Nafarroako Luzaide herrian dantzaten da. Dantza hau inauteri garaian egiten da borobilean eta bikoteka jarrita. Luzaiden inauterietan egiten den dantza bat denez, herri horretan garai batean inauterietako gainerako dantzak egiteko erabiltzen den arropa erabiltzea litzateke egokiena, hala ere ez dago dantza honetarako janzkera konkretu bat.

Bi bideoak ikusita (1. irudia eta 2. irudia) esan dezakegu dantza horien funtzio nagusia kulturala dela; izan ere, dantza bat ikasten aritu baitira, gero gure kulturaren zati bat gainerakoei erakusteko. Nahiz eta bideo honetan dantza taldea (2. irudia) dantza bakarra egiten ikusi, dantza taldeak hainbat dantza ikasten ditu, gure ondare kulturalaren mesedetan, horrela beste funtzio bat betetzen dutela esan daitekeelarik, ondarea mantentzekoa, hain zuzen ere.

Eskoletan egiten duten Polka Pik dantza (1. irudia) eta dantza taldeak herriko plazan egiten duen dantza (2. irudia), pausuei dagokienez ez da guztiz berdina. Batetik, kokapena ez da berdina; dantza taldekoak (2. irudia) lerroetan kokatuta daude eta eskolako ikasleak (1. irudia) berriz zirkuluan. Horrez gain, dantzaren bigarren atalean, dantza taldearen emanaldian, borobil bat osatzen dute lau bikoteren artean eta bikoteak bueltak emanaz mugitzen dira (2. irudia). Eskolako inauterietako emanaldian (1. irudia) ikasleak ez dira mugitzen, bikote bakoitzak besoetatik helduta egiten du dantza, zatiaren erdian eta amaieran txalo bat sartzen dutelarik. Azken finean esan dezakegu, dantza hau erakutsi dien pertsonak dantza erraztu duela ikasleek dantza ikasi eta ondo egin ahal izateko, buelten atala pixka bat zaila suerta baitaiteke 1. mailako ikasleentzat.



3. irudia: Zazpi Jauziak dantza Belaskoenea eskolako 4. mailako ikasleen eskutik



4. irudia: Zazpi Jauziak dantza Aratzuko eta Gareseko dantza taldearen eskutik

Aztertutako bigarren dantza zazpi jauziak izan da. Belaskoenea eskolako 4. mailako ikasleen emanaldia (3. irudia) eta Artazuko eta Gareseko dantzarien emanaldia (4. irudia) aztertu ditut. Jatorriz, Iparraldean; hau da, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan dantzatzen den dantza da. Denborarekin Euskal Herria osora zabaldu eta dantza herrikoitzat hartu da. Dantza honen errepresentaziorako, dantzariak bai neskak bai mutilak zirkulu batean kokatzen dira. Dantza hau egiteko ez dago janzkera konkretu bat, bakoitzak aukeratutako janzkera erabiltzeko aukera izango lukete.

Bi bideoak (3. irudia eta 4. irudia) ikusi eta gero, bai bideo baten eta bai bestearen funtzioa kulturala dela esango genuke; izan ere, dantza ikastearen helburua azkenean emanaldi batean interpretatzea baita. Hala ere, esan beharra dago dantza taldeek egiten dituzten dantzen funtzioa ondarea mantentzekoa ere badela; izan ere, talde hauek ez baitute interpretatu beharreko dantza bakarrik ikasten. Gainera, ondarea mantentzeko beharrezkoa den janzkera erabiltzen dute; horrek antzinako ohituren kutsua ematen diolarik dantzari.

Eskolako ikasleek egiten duten dantza (3. irudia) eta dantza taldeak (4. irudia) plazan egindako dantza aztertuz gero, esan beharra dago ez dela guztiz berdina. Dantza taldeak (4. irudia) dantza den bezala aurkezten du, inolako moldaketarik egin gabe. Belaskoenea eskolako ikasleek (3. irudia) dantza pixka bat moldatuta interpretatu dute; bigarren zatiko lehen pasua pixka bat moldatu dute, errazago egin ahal izateko; azken batean lau pausu eman ordez, bi ematen dituzte. Gainerako pausu guztiak baita kokapena ere jatorrizko dantzari dagozkio.



5. irudia: Zapatagin dantza Etxaurreneko ikastolako 1. zikloko ikasleen eskutik



6. irudia: Zapatagin dantza Itxartu dantza taldearen eskutik

Zapatagin dantzari dagokionez, Etxaurreneko ikastolako 1. zikloko ikasleen (5. irudia) eta Itxartu dantza taldearen (6. irudia) bideo bana aztertu ditut. Zapatagin dantza Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan ematen zen irri dantza dela esan daiteke, testigantza desberdinak bildu baitira Uztaritzen, Luzaiden, Alduden eta Zalgizen. Batzuk diote dantza hau 1900. urte inguruan galdu zela. Hala ere, gaur egun ezagutzen den dantza honen bertsioa Aita Donostiak Violet Alford ikertzaile ingelesaren laguntzaz 1933. urtean argitaratutakoa da. 1929. urtean Ainhoan bildutako bertsio bat da. Zapatagin dantza borobilean egiten da. Janzkerari dagokionez, ez dago dantza hau egiteko jantzi konkretu bat.

Bi bideoak ikusita (5. irudia eta 6. irudia) esan dezakegu dantza horien funtzio nagusia kulturala dela; izan ere, dantza bat ikasten aritu baitira, gero gure kulturaren zati bat gainerakoei erakusteko. Hala ere, esan dezakegu dantza taldeak gure ondare kulturalari dagozkion hainbat dantza ikasten dituela, bideo honetan ikus daitekeen bezala; horrela talde horren beste funtzio bat ondarea mantentzekoa dela esan daitekeelarik.

Bai dantza taldeko kideek (6. irudia) bai eskolako ikasleek (5. irudia) dantza, pausuei dagokienez, berdin egiten dute.

Curriculumari lotuta lortutako emaitza guztiak berdinak dira hiru dantzei dagozkien bi bideoetan. Curriculumari dagokionez, Arte Hezkuntzako 2. eduki multzoa lantzen da dantza hauekin. Eduki multzo horren barnean, dantzari dagozkion eduki desberdinak landu daitezke zikloaren arabera.

Esan behar da, eskola bateko 1. mailako ikasleen bideo bat (1. irudia) eta 1.zikloko ikasleen beste bideo bat (5. irudia) aztertu direla; beraz horiek bereziki dantza desberdinak, dantza hauen oinarrizko teknikak eta gorputz adierazpenarekin gozatzea landuko dituzte, beti ere curriculumak esaten duena betetzen badute. Gainera, 4. mailako beste bideo bat (3. irudia) ere aztertu dut, kasu horretan taldeko koordinazioa eta sinkronizazioa eta dantzekiko ardura eta interesa landuko lirakeelarik.

Zapatagin dantzarekin arte hezkuntzako edukiez gain, lanbideekin lotutako edukiak ere lantzen dira; izan ere zapata egilearen lanbidea azaltzen baita; era horretan diziplinartekotasuna landuz. Azken finean, dantza honek gure kultura musikala ezagutzeko parada emateaz gain, gure arbasoen artean ohikoa zen lanbide bat ezagutzeko aukera ematen digu.

Gainera, dantza hauekin lantzen diren edukien lantzeak ikasleen garapen integralean funtsezkoak izan daitezkeen eta dantzarekin lotuta dauden zenbait helburu betetzen lagun diezagukete. Nahiz eta curriculumean helburu desberdin bezala agertu, helburu bakar bat bezala ere laburtu dezakegu: Musika-kulturako produktuek ideiak, sentimenduak eta bizipenak jakinarazteko eta adierazteko eskaintzen dituzten aukerak ulertu eta produktu horiek Euskal Herriko ondarea eratzen duten elementutzat hartu, eta, horrela, kultura ezagutzen, balioesten eta gozatzen ikasiko dute. Gainera, dantza taldeen bideoei esker, dantzen funtzio sozialak ere ezagutu ditzakete.

Hezkuntzako gaitasun orokorrei ere zenbait ekarpen egiten dizkie dantza hauen lanketak. Komunikazio gaitasunari dagokionez, ikasleak, dantzaren bidez beste era batera ezin komunikatu ditzakeen emozioak agertu ditzake; horregatik Merce Vilarrek (2004) dionaren arabera dantza lengoai bat kontsidera dezakegu, adierazpen indibidualerako tresna eta gizarte bereko gizakientzako komunikazio tresna den neurrian. Ikasleek dantzaren bidez beste edozein eratan ezin adierazi ditzaketen sentimenduak igortzeko gaitasuna landuko dute; izan ere, Fregak (1997) dioen bezala, dantzek sentimenduak adierazteko erraztasuna ematen baitute.

Dantza ekintza aktiboa bat denez, egiten eta ekiten ikasteko gaitasunari laguntzen dio. Norbera izaten ikasteari dagokionez, dantza egiteko gorputza erabiltzen dugunez ikasleentzat beharrezkoa izango da bere burua eta bere gorputza ezagutzea.

Elkarbizitzen ikasteari dagokionez, ikasleek Polka Pik dantza bikoteka egiten dutenez, bakoitzak bere bikotearekin koordinatzen jakin beharko du, horrek taldekidetasuna bultzatzen duenari. Zazpi Jauziak dantza eta Zapatagin Dantza zirkuluan egiten dituzte, baina dantza hori egiteko ikasle guztien arteko koordinazioa behar da; sinkronizazio behar horrek taldekidetasuna sustatzen duenari. Haselbachek (1979) esaten zuena baieztatuz esan dezakegu aztertutako dantzetan ikasleen garapen integrarean lagun dezaketen aspektu batzuk lantzen direla. Horien artean, aipagarriena ikuspegi piskomotrizari dagokion koordinazioa lantzen dute gehienbat ikasleek, bai bikoteen arteko bai talde osoaren arteko koordinazioan zentratuz.

Ikasleek dantza ikasteaz gain, Interneteko bideo batean ikusten badute, dantza inguratzen duten beste hainbat aspektu ezagutzeko aukera izango dute; hau da, zein arrokekin egiten duten dantza, nola egiten duten dantza, nola kokatzen diren dantza egiteko, non egiten den eta abar. Zapatagin dantzaren kasuan, umeei bideoak ikusiz zapatagileek antzina zer lan egiten zuten ezagutzeko eta ulertzeko aukera izango dute.

3.3. Hipotesien inguruko eztabaida

Eskoletako bideoak aztertzean, ikusi da, erreferentzia moduan hartutako Oskorriren “Hi ere dantzari” diskotik, bakarrik dantza batzuen bideoak ikusi ahal izan ditugula, laginaren atalean dagoen taulak zehazten duen moduan. Eskoletan lantzen diren dantza horiek ezaugarri komun bat daukate: teknikoki dantza errazak direla. Dantzak, eskolei dagokienez, zenbat eta errazagoak izan orduan eta presentzia handiagoa dute Youtuben; horregatik esan dezakegu, 1. hipotesia orokorrean betetzen dela. Hala ere, eskola bateko bideo batean, 1. mailako ikasleak ikus daitezke teknikoki pausu zailak dituen Bolant dantza dantzatzen.

Horrez gain, dantza taldeen eta eskolen arteko konparaketa eginez, ikusten da, eskoletan gehien dantzatzen diren dantzen artean daudela erromerietan edo herriko plazetan ohikoak direnak. Orduan, esan daiteke, 2. hipotesia egiaztatuz, testuinguruak eragin

zuzena daukala dantzen aukeraketan eta praktikan. Hau da, kaleko jai giro eta erromerietan aritzeak, dantza konkretu batzuen ezagutza eta erabilera bultzatuko du, eta horrek markatuko ditu dantzen arteko ezberdintasunak, bai ikastetxeetako, bai dantza taldeetako ekoizpenetan.

Bestalde, eskolen kasuan, esan daiteke, zeharo egiaztatzen dela 3. hipotesia: eskolako dantza guztiak taldean edo bikoteka egiten dira, eta taldekidetasuna edota taldean integratzea bilatzen dute. Aldiz, dantza taldeen kasuan, izaera parte-hartzailea eta taldekidetasuna sustatzeaz gain, hainbat dantzen helburua bakarkako trebezia agertzea da. Horregatik, talde horietako bideo ekoizpenetan Oskorriren diskoan agertzen ez diren dantzen kopurua askoz handiagoa da. Dударik gabe, dantza taldeen azken helburua ondare kulturala mantentzea bada, eskolen kasuan –eta alde soziokulturala baztertu gabe- alde pedagogikoari ematen zaio lehentasuna.

4. Ondorioak eta prospektiba

Ikerketa lan honetatik ondorengo ondorioak atera daitezke:

- Emaitzetako grafikoetan argi ikusten da eskoletan nagusi direla edozein eratako ikuskizunak. Beraz, eskoletan dantzak irakastearen zergatia, ondare kulturala mantentzea baino gehiago, jendearen aurrean dantza batzuk erakustea izango litzateke. Hori dela eta, dantzen inguruan dauden beste aspektu batzuk ez dira apenas lantzen: dantzen zentzuak eta esanahiak, lehen eta gaur egun, edota jatorrizko funtzio soziokulturalak.
- Aztertutako bideo kopuruen taularen arabera, esan daiteke, eskoletan egiten diren euskal dantzen bideoen presentzia Youtuben, oraindik ez dela hain nabarmena. Gainera, salbuespen batzuk izan ezik, eskola bakoitzak sarean eskegitzen dituen bideoen kopurua oraindik eskasa da. Beraz, hedatu gabeko fenomeno baten aurrean gaude, baina etorkizun oparoa izan dezakeena, dudarik gabe.
- Lortutako emaitzei erreparatuz, esan dezakegu eskolan dantzak lantzea onuragarria dela; izan ere ikasleen garapen integrala bultzatzen baitute (Haselbach, 1979), hezkuntzako gaitasun orokorreari eta informazioa tratatzeko

eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasunari eta hezkuntzako gaitasun orokorreari zenbait ekarpen eginez. Gainera, curriculumean datozen Arte Hezkuntzako zenbait helburu lortzen ere laguntzen dute.

- Dantza taldeei dagokienez, esango genuke, haien funtzio nagusia kulturala izateaz gain, ondarea mantentzekoa ere badela; izan ere, dantza parte-hartzaile horiek, beraien erreperatorioko zati bat baino besterik ez dira (eta agian ez zatirik garrantzitsuena).
- Dantza taldeen bideoak Lehen Hezkuntzako ikasleekin lantzea onuragarria izan daiteke curriculumak helburutzat markatzen duen funtzio sozialen aspektua lantzeko, hain zuzen ere. Dantza taldeek dantzak orain dela urte asko egiten ziren bezala egiten saiatzen dira; hau da, garai hartako pausuak imitatzen, arropak kopiatzen eta dantzetan erabiltzen ziren abestiak ikasten ibiltzen dira, dantzek antzinako kutsu hori galdu ez dezaten. Faktore hori aberasgarria izan daiteke ikasleek dantza bakoitzak gure gizartean izan duen eta gaur egun duen funtzio soziala eta zeregina ulertzeko.
- Aztertutako bideo kopurua azaltzen den taulan argi ikus daiteke eskoletan Oskorriren disko horretako dantza batzuk bakarrik egiten direla. Dantza horiek dantza taldeek zein ekintza motetan egiten dituzten aztertuz gero, asko erromerietan egiten dituzte. Horregatik, eskoletan dantza horiek erakustea garrantzitsua da, gero ikasleek dantza horiek dantza taldeekin batera herriko erromerietan dantzatu ahal izateko. Honekin lotuta esan dezakegu, Oskorrik disko hau grabatzerako orduan izan zezakeen helburuetako bat plazako dantza horien presentzia indartzea edo dantza horien garrantzia azpimarratzea zela.

Lana orokorrean begiratu, bere puntu fuertek eta ahulak zeintzuk diren aipatu daitezke.

- Puntu fuerteei dagokienez, esan behar da, Youtuben dantza taldeen bideo asko topatzeko aukera izan dudala eta horrek emaitza desberdin gehiago izateko aukera eskaini didala. Gainera, dantzak teorikoki hezkuntzan duen garrantzia baieztatu eta ziurtatu ahal izan dugu, hein handi batean.
- Puntu ahulei dagokienez, analisi dokumentala egin dugunez, bideoak behatu, ezin izan dugu frogatu eskoletan nola lantzen dituzten curriculumari dagozkion aspektuak. Horretarako, lan hau elkarriketen bidez osatu daiteke.

4.1. Etorkizunerako proposamenak

Ikerketa honetan lortutako emaitzak eta ondorioak ikusita, dantzak hezkuntzan leku zabalagoa izan dezan eta presenteago egon dadin, ikasleen eguneroko bizitzan aplikatzeko -eta ez bakarrik ikuskizunetan- proposamen batzuk azaltzen ditut:

- Ikusita dantza aberasgarria dela ikasleen formakuntza integralerako (Haselbach 1979), euskal dantzak musika irakasgaiko zati garrantzitsu bezala hartu eta sarri dantzak irakatsi beharko lirateke.
- Ikasleek haien kultura eta arbasoek utzitako ondarea ezagutzeko tresnatzat erabiltzea (Pedrero, 2013), eta ez bakarrik ikuskizun batzuetan erakusteko dantza gisa.
- Irakasleek dantzarekiko duten formazioa handitzea; izan ere, batzuetan oso eskasa baita, horrek dantzak ikasleekiko eskaintzen dituen aukera guztiak ez aprobetxatzea dakarrelarik. Aukera horiek aprobetxatuz, Larrinagak (2007) esaten duen moduan ondareaz balia daitezke gorputzaren kontrola, erritmoa eta koordinazioa lantzeko. Horrez gain, ikasleen garapenean oso garrantzitsua den sormena ere landu daiteke.

Azkenik, irakasle konstruktibista delakoa, eskolako ekintza askotan parte-hartzera, eta teknologia berriak erabiltzera bultzatuko nuke. Ildo horri jarraituz, dantzak teknologia berrien bidez lantzea ideia egokia litzateke; izan ere, ikasleek, baliabide teknologikoen bitartez, dantzei buruzko era guztietako informazioa jaso dezakete. Informazio hori lantzerakoan, web-orrietako -edo beste atari batzuetako- datuak erabili edo baztertu egin beharko dituzte; horrela, informazioa tratatzeko eta teknologia digitalak erabiltzeko gaitasuna landuz.

Erreferentzia bibliografikoak

Liburuak, aldizkariak, artikulua edota tesiak

Becker, H. (1998). Teaching, learning and computing: 1998 a national survey of schools and teachers (Inkesta bat da). *EEBBko Hezkuntza Sailak finantziatua*, 2015ko martxoaren 4ean hartuta, hemendik:http://www.crito.uci.edu/tic_home.htm

Casas, A. (2013). *Culturas de aprendizaje musical: concepciones, procesos y prácticas de aprendizaje en Clásico, Flamenco y Jazz* (Doktorego tesi bat da). Madril: Madrilgo Unibertsitate autonomoa.

Colás, M. P. Buendía, L., & Hernández, F. (1997). *Métodos de investigación en psicopedagogía*. Madrid: McGrawHill

Díaz, M. (2004). La educación musical en la etapa 0-6 años. *Revista Electrónica de LEEME (Lista Europea de Música en la Educación)*, 14, 1-6

Eusko Jaurlaritzak (2007). *Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko 175/2007 Dekretua* (IV. Eranskina: Lehen Hezkuntzako Arloak, Arte Hezkuntza).

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Kristau Eskola, Sortzen-Ikasbatuaz (2006). *Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculumak* (III Diziiplina arloen bidezko konpetentzien proposamena, 4 Musika eta dantza 206 - 224).

Frega, A. L. (1997). *Metodología Comparada de la Educación Musical*. Buenos Aires: CIEM (Centro de Investigación Educativa Musical).

Geertz, C. (1987). *La interpretación de las culturas*. México: Gedisa.

Geertz, C. (1992). *La interpretación de las culturas*. Barcelona: Gedisa.

Gómez, I. (1990). *Una propuesta curricular para el ciclo medio de la Educación Primaria*. (Doktorego tesia bat da). Bartzelona: Bartzelonako Unibertsitate autonomoa.

- Haselbach, B. (1979). *Didáctica de la danza Objetivos de aprendizaje en la educación de la danza*. Madrid: Instituto Alemán.
- Hine, C. (2000), *Virtual Ethnography*. Thousand Oaks, CA: Sage.
- Hine, C. (2005), *Virtual Methods: Issues in Social Research on the Internet*. New York: Berg.
- Larrinaga Zugadi, J. (2007) Folklore y educación: hacia una nueva metodología. *Jentilbaratz*, 9, 361-374.
- Liege, J.; Meso, P.(2000). *Web-Based Instruction Systems*. En Lau, L.: *Distance Learning Technologies: Issues, Trends and Opportunities*. IDEA Group Publishing, Hershey PA.
- Logan, R. (2000). *The sixth language: Learning a living in the internet age*. Toronto: Stoddart.
- Muruamendiaraz, N. (2012). Manifestaciones socio-culturales y Educación Musical. Conocimiento artístico y cultural a través de la danza tradicional. *XVII Congreso de Estudios Vascos: Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza = Innovación para el progreso social sostenible (17. 2009. Vitoria-Gasteiz)*, 91-109, Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Papert, S. (1993). *The children's machine*. Nueva York: Basic Books.
- Pedrero, C. (2013). Danza en educación primaria. *Educatio Siglo XXI*, 31 (1), 129-148.
- Sandin, M. P. (2003). *Investigación cualitativa en Educación. Fundamentos y tradiciones*. Madrid: McGrawHill.
- Vilar, M. (2004). Acerca de la educación musical. *Revista Electrónica de LEEME (Lista Europea de Música en la Educación)*, 13, 1-9
- Zengotita-Bengoa, A. (1995). EUSKAL DANTZA ESKOLAN Folklore Eskolara Euskal Dantzaren Bidez. *XII Congreso de Estudios Vascos: Estudios Vascos en el*

Sistema Educativo = Eusko Ikaskuntza Hezkuntza Sarean. Vitoria-Gasteiz, 387-406, Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Weben eta Youtubeko bideoen helbide eta izenak

Etxaurren Ikastolako 1. zikloko ikasleak Zapatagin Dantza interpretatzen, 2015-02-12an berreskuratua, <https://www.youtube.com/watch?v=o7-54BDgSA8>

Belaskoenea eskolako 4. mailako ikasleak Zazpi Jauziak dantzatzen, 2015-02-13an berreskuratua, https://www.youtube.com/watch?v=E5P_Eqt7bqo

Huartekeo Virgen Blancako 1. mailako ikasleak Polka Pik dantza interpretatzen, 2015-02-18an berreskuratua, <https://www.youtube.com/watch?v=Y14y3RnIOOI>

Euskal Dantza Tradizionalak 2015-03-05ean berreskuratua, <http://www.hiru.com/eu/cultura-vasca/danzas-tradicionales-vascas>

Iruña dantza taldea Polka Pik dantza interpretatzen, 2015-03-08an berreskuratua, https://www.youtube.com/watch?v=JM5CO_Cy0nQ

Artazuko eta Gareseko dantzariak Zazpi Jauziak dantzatzen, 2015-03-10ean berreskuratua, https://www.youtube.com/watch?v=e_HB0G8Yzyc

Itxartu dantza taldea Zapatagin dantza interpretatzen, 2015-03-11an berreskuratua, <https://www.youtube.com/watch?v=cI0VfLCssOw> (11:47tik 13:33ra arte)

Zazpi Jauziak dantza, 2015-04-01ean berreskuratua, <http://www.gaztedi.net/zazpijauzi.html>

Polka Pik dantza, 2015-04-03an berreskuratua, <https://sites.google.com/site/euskaldantzakinternationaleusk/patxidantzak>

Zapatagin edo zapatain dantza, 2015-04-06ean berreskuratua, <http://www.gaztedi.net/zapataindantza.html>